

BASES II CONCURSO DE FOTOGRAFIA “CIUDAD DE VIANA”

Antolatzailea

Vianako Udala da “Viana Hiria” II. Argazki Lehiaketaren sustatzailea

Gaia

Vianako ondarearekin lotutako edozein kontu izanen da lehiaketaren gaia: hau da, Vianako arkitektura, gizartea, kultura eta paisaia.

Parte-hartzea

Edonork har dezake parte lehiaketan, **adin mugarik gabe, nazionalitatea edozein delarik ere.**

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztuko ditu lehiaketara, koloretan edo zuri-beltzean.

Argazkien ezaugarriak

Argazkiek jpg formatu digitalean egon beharko dute, eta gutxienez 2.500 pixeleko bereizmena izan beharko dute alde txikienean, eta tamaina 3 eta 6 Mb bitartekoa. Kolore espazioa sRGB izanen da.

Baimenduta egonen da argazkiei ukituak egitea, baldin eta kalitatea hobetzen duten iragazki globalak aplikatzeko bada (distira, kontrastea...), baina ezin izanen da aplikatu operadore globalik elementuak gehitzeko edo ezabatzeko, hainbat argazki nahasteko edo jatorrizko konposizioa aldatzeko.

Argazkiak beste ezein lehiaketatan saritu gabeak izanen dira, eta 2020ko irailaren 8tik argazkiak aurkezteko azken egunera bitartean (2021eko irailaren 7a) egin beharko dira.

Argazkiek anonimoak izan behar dute, eta ez dute egilearen seinalerik edo identifikaziorik izan behar.

Ez da argitaratuko argazkirik, baldin eta haien edukiak indarrean dagoen legedia urratzen badu.

Argazkiak aurkezteko epea

Argazkiak 2021eko abuztuaren 10etik irailaren 7ra bitarte bidaltzen ahalko dira

Identifikazioa eta bidalketa

Lehiaketan parte hartzeko, argazkiak bidali beharko dira berariaz prestatuak inprimaki baten bidez (<https://forms.gle/GPnWzs6iGA3mywGN7>). Bertan, argazkiaz gain, honako informazio hau sartuko da: argazkiaren izenburua, izen-abizenak, posta elektronikoa, telefonoa eta posta-helbidea.

Parte-hartzaileak ez badu google konturik, turismoycultura@viana.es helbidera bidaliko ditu, goian aipaturiko datuak emanda.

Ez da onartuko aurkezpen epetik kanpo bidalitako argazkirik.

Epaimahaiaren osaera

Udaleko pertsona bat eta gaian adituak diren bi lagun izanen dira epaimahaikide.

Aurkezpen epea bukatutakoan, epaimahaiak argazkiak ikusi, lehen aukeraketa egin eta 30 argazki bereiziko ditu, epaimahaiak eta publikoaren botoak behin betiko balorazioa egin dezaten.

Hala hasierako aukeraketan nola ondoko balorazioan, argazkiaren kalitatea, orijinaltasuna eta sormena hartuko dira kontuan.

Epaimahaiaren erabakia

Behin argazkiak aurkezteko epea bukatu, epaimahaia bildu egingen da 3 sari nagusiak eta herriko saria baloratzeko. Epaimahaiaren iritziz, argazkiek ez badute gutxieneko kalitaterik, sariak eman gabe gelditzen ahalko dira.

Publikoaren saria erabakitzeke, herri bozketa egingen da 30 argazki onenen artean. Esteka bat prestatu da botoa emateko (<https://forms.gle/jpKGoYhiQ7s5Xrtt9>) eta irailaren 20tik 26ra bitarte bozkatu beharko da.

Sariak

Sari hauek ezarri dira (indarrean den legedia aplikatuta):

- Lehen saria: 400 euro
- Bigarren saria: 200 euro
- Hirugarren saria: 100 euro

- Gainera, herriko sari bat ere emanen da, 150 eurokoa, eta publikoaren saria, 150 eurokoa, herri bozketaren bidez.

Argazki berberak gehienez sari bakarra eskuratuko du

Erakusketa

Egoera soziosanitarioak aukera ematen badu, 30 argazki aukeratuak ikusgai jarriko dira Kultur Etxean, urriaren 1etik aurrera.

Erakusketa urriaren 1ean zabalduko da eta, hantxe bertan, argazki sarituen berri emanen da, hau da, hala epaimahaiak aukeratutakoak nola herri bozketaren bidez irabazi duena.

www.viana.es webaren bidez eta sare sozialen bitartez jakinaraziko da zein argazki saritu diren. Vianako Udala, halaber, irabazleekin jarriko da harremanetan.

Argazki inprimatuak Vianako Udalaren argazki-artxiboan gordeko dira.

Baldintza orokorrak

Deskalifikatu eginen dira oinarriak betetzen ez dituzten argazkiak, edo oinarriak bete arren, eskubide pertsonalak urratu ditzaketenak, edo iraingarriak edo diskriminatzaileak izan daitezkeenak. Halaber, Vianako Udalak –bere irizpideen arabera– ezegokitzat jotzen dituen argazkiak deskalifikatzeko eskubidea izanen du.

Argazki sarituak Vianako Udalaren jabetzapekoak izanen dira. Bestalde, gainerako 30 argazkietako irudi-eskubideak laga eginen dira, Vianako Udalak erakusketa hartan erabiltzeko eta lehiaketa hau edo ondorengo edizioak sustatzeko. Egilearen izena bere lanaren ondoan agertuko da beti.

Erakusgai jarriko diren 30 argazkiak salmentarako erreproduzitu ahal izanen dira, betiere ongintzazko xedearekin, eta egilea nor izan den agertuko da argazkian.

Era berean, epaimahaiak baloratzen dituen 12 argazki onenak urteko egutegi bat egiteko erabiliko dira, eta egutegian ere argazkiaren egilea agertuko da.

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak izanen dira irudi eskubideengatik eta hirugarrenen eskubideengatik sortzen diren erreklamazioen erantzuleak.



VIANAKO UDALA DA “VIANA HIRIA” II. ARGAZKI LEHIAKETAREN SUSTATZAILEA



30 argazki onenen lehen aukeraketa gaitzen ez duten lanak artxibotik kenduko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek osorik onartzen direla eta Vianako Udalak oinarriari buruz hartzen dituen interpretazio erabakiak espresuki bere egiten direla.

Lehiaketaren oinarriak udal bulegoetan daude interesdunen eskuragarri: Foruen plaza 1, Viana (Tel.: 948 645007- 948 446302).